

**XXX/2026 DEKRETUA, 2026ko xxxxxaren xx(e)koa, 2026ko URTEKO ESTADISTIKA PROGRAMA
ONARTZEN DUENA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak 6. artikuluan xedatzen duenez, Euskal Estatistika Plana da jarduera hori aldi batez antolatzeko tresna. Gaur egungo plana ekainaren 27ko 10/2023 Legearen bidez onartu zen (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planarena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzekoa), eta barnean hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak 2023-2026 aldian egin beharreko estatistika-eragiketak.

Apirilaren 23ko 4/1986 Legeak 7. artikuluan dioenez, urteko estatistika-programak plana garatzeko eta gauzatzeko tresnak dira, eta Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartu behar dira. Programa horiek zerrenda batean biltzen dituzte estatistika-eragiketak eta izaera horretako beste jarduera batzuk, eta aipatutako legearen 7. artikuluen 4. apartatuan zehazten diren ezaugarriak jasotzen dituzte eragiketa horietako bakoitzari buruz, banakako fitxetan jaso ere.

Era berean, 4/1986 Legearen 7. artikuluen 3. apartatuak dioenez (azaroaren 9ko 10/2023 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren zortzigarren puntuak aldatu zuen apartatu hori), plana garatzeko eta gauzatzeko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartzen diren urteko estatistika-programek arau-izaera dute.

4/1986 Legearen 7.1 artikulua aukera ematen dio Jaurlaritzari planean aurreikusi gabeko eragiketak sartzeko urteko estatistika-programetan. Bada, artikulua horren babesean, hasiera batean 2023-2026 aldirako Euskal Estatistika Planean sartu gabeko bi estatistika-eragiketa arautu dira: bata, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak proposatuta (069041 – Adinekoentzako egoitza-zentroetako kalitate-adierazleei buruzko estatistika), eta, bestea, Segurtasun Sailak proposatuta (080103 – Delitu-estatistikak).

Bestalde, sektore publikoko informazioa aparteko datu-iturria da, eta datu horiei esker merkatu bakarra hobetu eta pertsona fisiko eta juridikoentzako aplikazio berriak garatzeko aukera egon daiteke. Datuak adimenez erabiltzeak, adimen artifizialeko aplikazioen bidezko tratamendua barne, aldakuntzak eragin ditzake ekonomiaren sektore guztietan.

Datu irekiei eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko (EB) 2019/1024 Zuzentarauak adierazten du balio handiko datu-multzoen zerrenda bat izateak onura sozioekonomiko handiak sortzen dituela. Balio handiko datu-multzoen zerrenda ezarriz, potentzial handieneko datu publikoak erabiltzaileen eskura jartzen direla bermatu nahi da batez ere, berrerabil ditzaten.

Batzordearen 2022ko abenduaren 21eko 2023/138 Exekuzio Erregelamenduak eranskinean agertzen diren gaikako kategorien barruan sartzten diren balio handiko datu-multzo espezifikoek zerrenda bat ezartzen du; eranskinean zehaztutako gaikako kategorien barruan sartzten dira, eta horien artean daude datu estatistikoak, 4. apartatuan. Dekretuaren 3.4 artikuluan zehazten da zein diren Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez eskuragarri egon beharko duten balio estatistiko handiko datuak.

Apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 7. artikuluan agindutakoa betez, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak prestatu du 2026ko Urteko Estatistika Programaren proiektua. Proiektuaren edukia Euskal Estatistika Kontseiluak aztertu du, eta Euskal Estatistika Batzordeak, bestalde, apirilaren 23ko 4/1986ko Legearen 34.b) artikulua aipatzen duen nahitaezko txostena eman du.

Horrenbestez, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2026ko XXXXXaren XXX(e)(a)n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— 2026ko Urteko Estatistika Programa onartzea.

4/1986 Legearen 7. artikulua xedatu duenarekin bat etorriz, 2026ko Urteko Estatistika Programa onartzen da, zeina dekretu honen eranskin gisa doan eragiketa-multzoak osatzen baitu.

2. artikulua.— Nahitaez erantzun beharra.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 10.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu honen IV. eranskineko estatistika-eragiketa bakoitzaren fitxan informatzaile gisa ageri direnek nahitaez bete behar dituzte 2026ko Urteko Estatistika Programan sartutako estatistikak.

3. artikulua.— Estatistika ofizialen emaitzak argitaratzea eta zabaltzea.

1.— 2026ko Urteko Estatistika Programan sartzen diren estatistiken emaitzak Eustat – Euskal Estatistika Erakundearen web zerbitzarian argitaratu eta zabalduko dira, gutxienez. Gainera, sail bakoitzaren eskumeneko estatistiken emaitzak sail horien atarietan argitaratu eta zabalduko dira, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari edukiaren berri eman eta gero.

2.— Estatistika-eragiketa bakoitzaren ardura duen organismoak Eustat – Euskal Estatistika Erakundera bidali behar ditu lortu dituen emaitza nagusiak; bidali ere, argitaratzen diren egunean.

3.— Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du emaitza horiek badaudela adierazten duen iragarkia.

4.— 4/1986 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren balio handiko datu estatistikoak —10/2023 Legearen azken xedapenetako lehenengoaren hogeita bigarren puntuak aldatu zuen xedapen gehigarri hori (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planarena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzekoa)— zehaztuta daude Batzordearen 2022ko abenduaren 21eko (EB) 2023/138 Exekuzio Erregelamenduaren 4. eranskinean (Estatistikak), eta datu horiek, baldin eta aldagaiak egokiak badira Euskal Autonomia Erkidegorako, Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak zabalduko ditu bere datu estatistikoen bankuan, aplikazioen programazio-interfazeen bitartez, eta, hala badagokio, deskarga masiboaren bidez. Batzordearen Erregelamendu horren bitartez, balio handiko datu-multzo espezifikoaren zerrenda bat eta haiek argitaratzeko eta berrerabiltzeko modalitateak ezartzen dira. Lurralde-desagregazioa Euskal Autonomia Erkidegokoa, lurralde historikoetakoa eta, hala badagokio, lurralde historikoa baino txikiagoak diren eremuen arabera xehatuko da.

Sailetako estatistika-organo espezifikoak lankidetzan arituko dira Eustat – Euskal Estatistika Erakundearekin, balio handiko estatistika-datuen zerrenda hori egiteko.

4. artikulua.— Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari informazioa ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako organismoek estatistikarako informaziorik emanez gero Estatuko Administrazio Orokorreko organismoek eta sektore publiko instituzionalari, emandako informazioaren kopia bidaliko diote Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Indarraldia.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 31ra arte izango du indarra.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarraldia luzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 7. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorruta, programa honen indarraldia amaitzen denerako onartu gabe badago urteko estatistika-programa berria, luzatutzat joko da, besterik gabe, programa berria indarrean jarri arte, salbu eta ezarritako epeak edo aldiak direla-eta kanpoan utzi beharreko estatistika-jarduketak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko XXXXaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

2026KO URTEKO ESTATISTIKA PROGRAMA ONARTZEN DUEN, 2026KO XXXXXAREN
XX(E)KO DEKRETUAREN ERANSKINA